

619/2023 EBAZPENA, 2023ko martxoaren 24a, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketako errektoreordeak emana, zeinaren bidez deialdia onesten baita “Praktikak Nafarroako enpresetan Auburneko Unibertsitateko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) ikasleekin” ikastaroa eginen duten ikasleak aukeratzeko 2022-2023 ikasturterako; “Industria Ingeniaritzako Graduatuen eta Ingeniari Teknikoaren Elkargoaren (CITI Navarra) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 4.0 Industriaren Katedra”ren esparruan antolatu dute ikastaro hori.

4.0 Industriaren Katedrako Jarraipen Batzordeak, 2023ko urtarrilaren 30an egindako bileran, onetsi zuen 2022-2023 ikasturtean 5 beka ematea Industria, Informatika eta Telekomunikazio Ingeniaritzako Goi Mailako Eskola Teknikoko ikasleentzat (ETSIIT), “Praktikak Nafarroako enpresetan Auburneko Unibertsitateko eta NUPEko ikasleekin” ikastaroko matrikularen zenbatekoa ordaintzeko.

Ikastaro horrek benetako bizitzako lan esperientzia bat eskaintzen dien ikasleei, non nazioarteko ingurune batean eta taldeko lanaren bidez ingeniaritzako problema bat ebartziko duten. Auburneko Unibertsitateko irakasleek gidatzen dute ikastaroa, eta ikasleek taldeetan eginen dute lan, unibertsitate horretako irakasleen eta Espainiako enpresetako langileen aholkularitzapean. Ikasleek irakasleei eta enpresari aurkeztuko diete beren proiektua. Ikasleek problemak ebazteko tekniken teoria eta praktika azaltzeko aukera emanen dieten proiektuetan hartuko dute parte. Teknika horien artean, besteak beste, honako hauek daude: datuen bilketa eta analisia, modelatze konputazionala eta zerbitzuen eta manufakturen industriekin loturiko problemen diseinua.

Hauek dira ikastaroko jardueren helburuak:

- Ikasleei prestakuntza ematea ingeniaritzaren printzipioak modu eraginkorrean aplikatzen jakin dezaten.
- Laneko esperientzia ematea nazioarteko ingurune batean.
- Esperientzia kulturala eta globala eskaintzea.
- Ikasleei esperientzia ematea diziplina eta kultura anitzeko taldeetan lan egiten.
- Ikasleek ahoz eta idatziz komunikatzeko dituzten trebetasunak hobetzea.

Ikusirik Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 4.0 Industriaren Katedrak egindako akta eta proposamena.

Ikusirik Unibertsitateko Zerbitzu Juridikoak egin duen txostena.

Ikusirik Kontabilitate Atalak egindako kreditu-erreserbaren ziurtagiria eta zerga-tratamenduari buruzko txostena.

Kontuak ikuskaturik eta aldeko fiskalizazioa eginik.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak 2019ko uztailaren 3an emandako 1420/2019 Ebazpenaren bidez ematen dizkidan eskudantziak erabiliz.

EBAZTEN DUT

Lehenbizikoa. - Onestea Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 4.0 Industriaren Katedraren esparruan “Praktikak Nafarroako enpresetan Auburneko Unibertsitateko eta NUPEko ikasleekin” ikastaroa eginen duten ikasleak aukeratzeko deialdia 2022-2023 ikasturterako, ebazpen honen eranskinean dauden oinarrien arabera.

Bigarrena.- Deialdi honek sortzen duen gastua baimentzea, 5.000,00 euroko gehieneko kopururaino.

Sorturiko gastua Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2023ko ekitaldirako duen Gastuen Aurrekontuetako partida honen kargura ordainduko da:

30.30.00.7669 0380 480.24 Katedretako beka

Hirugarrena.- 5 bekatarako deia egiten da “Praktikak Nafarroako enpresetan Auburneko Unibertsitateko eta NUPeko ikasleekin” ikastaroaren matrikula ordaintzearen deialdi honen bidez aurretiaz aukeratutako 5 ikasleri. Beka bakoitza 1.000 eurokoa izanen da gehienez ere.

Laugarrena.- Ebazpen hau aditzera ematea Nafarroako Unibertsitate Publikoko 4.0 Industriaren Katedrari, Aurrekontuen eta Plangintza Ekonomikoaren Atalari, Kontabilitate Atalari, Ikerketa Zerbitzuari, Ikerketako errektoreordeari eta Kontu-hartzailezari.

Bosgarrena.- Ebazpen hau 4.0 Industriaren Katedraren webgunean (<https://www.unavarra.es/catedra-industria40>) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki-ohol elektronikoan argitara dadila agintzea.

Seigarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka zilegi da berraztertze errekurtsoa jartzea errektoreari zuzendua hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako administrazioarekiko Auzietako Epaitegian bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Iruñean, 2023ko martxoaren 27an



Francisco Javier Arregui San Martín

Ikerketako errektoreordea

I. ERANSKINA.- OINARRIAK**IKASTAROA EGINEN DUTEN IKASLEAK AUKERATZEA****“PRAKTIKAK NAFARROAKO ENPRESETAN AUBURNEKO UNIBERTSITATEKO
ETA NUP-EKO IKASLEEKIN” IKASTAROA****2022-2023 IKASTURTEA**

Eranskina, 2023ko martxoaren 24an 619/2023 Ebazpenarena

1.- - Deialdiaren xedea.

1.1.- Deialdi honen xedea da NUPeko Industria, Informatika eta Telekomunikazio Ingeniaritzako Goi Mailako Eskola Teknikoan emandako graduetako bat ikasten ari diren eta 4.0 Industriaren Katedraren esparruan “Praktikak Nafarroako enpresetan Auburneko Unibertsitateko eta NUPeko ikasleekin” ikastaroa eginen duten ikasleak aukeratzea 2022-2023 ikasturterako.

2.- - Beken ezaugarriak.

2.1.- 2022-2023 ikasturterako 5 bekatarako deia egiten da “Praktikak Nafarroako enpresetan Auburneko Unibertsitateko eta NUPeko ikasleekin” ikastaroaren matrikula ordaintzeko.

2.2.- Ikastaroa 2023ko maiatzaren 30ean hasi eta 2023ko ekainaren 30an bukatuko da, bi egunak barne.

2.3.- Beka bakoitzaren zenbatekoa ikastaroaren matrikulari dagokiona izanen da, eta 1.000 eurokoa gehienez ikasle eta ikasturte bakoitzeko.

3.- – Betekizunak eta lehentasuna

3.1.- Hauek dira deialdian parte hartu ahal izateko betekizunak:

- 2022-2023 ikasturtean Industria Ingeniaritzako, Informatikako eta Telekomunikazioko Goi Mailako Eskola Teknikoan emandako graduren batean matrikulatutako ikasleak, gutxienez 150 kreditu gainditu dituztenak, eta Industria Ingeniaritzako, Informatikako eta Telekomunikazioko Goi Mailako Eskola Teknikoan emandako masterren bateko lehenbiziko mailako ikasleak.
- Elkargoan alta emanda egotea ikasle akreditatu moduan (industria-adarreko graduetako ikasleak) edo elkargokide gisa (industria-adarreko masterreko ikasleak).
- Ingeleseko B2 maila edo handik gorakoa ziurtagiri bidez egiaztatzea.”

3.2.- Oro har, eskatzen diren betekizunak eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean bete beharko dira.

3.3.- Arestian aipatutako betebeharrak betetzen dituzten ikasleen artean, lehenetsua emanen zaie 2022-2023 ikasturtean Industria, Informatika eta Telekomunikazio Ingeniaritzako Goi Mailako Eskola Teknikoan emandako industria-adarreko graduren batean matrikulatutako ikasleei, baldin eta gutxienez 150 kreditu gainditu badituzte eta Industria, Informatika eta Telekomunikazio Ingeniaritzako Goi Mailako Eskola Teknikoan emandako industria-adarreko masterren bateko lehen ikasmilako ikasleak badira.

3.4.- Deialdi honetan parte hartzea borondatezkoa da. Beraz, deialdian parte hartzen duenak baldintza guztiak onartzen dituela ulertuko da. Aurkezten den dokumentazioan datu faltsurik bada, eskaera ez da onartuko, edo beka bertan behera geldituko da, baldin eta ordurako emanda badago.

4.- - Eskaeren aurkezpena.

4.1.- Deialdi honetan parte hartu nahi duten ikasleek inprimaki normalizatu bete baten bidez formalizatu beharko dute eskabidea. Inprimaki hori Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Erregistro Elektronikoa aurkeztuko da, eta honako esteka honetan dago eskuragarri: [Eskaeraren formalariora](#)

Balorazio Batzordeak informazio gehigarria eskatuko du, beharrezkotzat jotzen badu, aukeratzeko proposamena egiteko.

4.2.- Eskaerak aurkezteko epea deialdia argitaratu eta biharamunetik 2023ko apirilaren 30era bitartekoa da.

Eskaerak aurkezteko epea ezin izanen da luzatu.

5.- - Eskaeren tramitazioa.

5.1.- Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero, tramitatzeko onartutako eskatzaileen eta ezarritako betekizunetakoren bat ez frogatzeagatik edo eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik baztertutako behin-behineko zerrenda argitaratuko da. Eskatzaile horiei 5 eguneko epea emanen zaie, behin-behineko zerrenda argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, dagokion dokumentazioan atzemandako gabeziak konpon ditzaten. Ezarritako epean egin ezean, eskaera ezin izanen da tramitera onartu.

5.2.- Aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, 4.0 Industria Katedraren Balioespen Batzordeak Unibertsitateko Ikerketako errektoreordeari bidaliko dio tramitera onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda, ebazpen baten bidez onetsi dezan, eta jendaurrean jarriko da deialdi honen 9. oinarrian ezarritako lekuetan.

Tramitera onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda ezartzen duen ebazpenaren aurka, zilegi da aukerako berraztertze errekurtsoa jartzea errektoreari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa

Nafarroako administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

6.- - Balorazio Batzordearen osaera eta ikasleen aukeraketa.

6.1.- Hauek izanen dira Balorazio Batzordeko kideak:

- Nafarroako Industria Ingeniaritzako Graduatuen eta Ingeniari Teknikoen Elkargoko burua, edo hark eskuordetzen duen pertsona, zeina batzordeburu lanetan arituko baita.
- 4.0 Industriaren Katedrako zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- 4.0 Industriaren Katedraren Segimendu Batzorde Mistoaren burua, edo hark eskuordetzen duen pertsona, zeina idazkari lanetan arituko baita.

4.0 Industriaren Katedrako zuzendariak eskatuta eratuko da batzordea, eta, horretarako, batzordekideei dei egingen die. Halaber, Katedrak behar diren kudeaketak egingen ditu Balorazio Batzordearen jarduna errazteko.

6.2.- Beken esleipenaren hurrenkera zehazteko, Katedraren Balioespen Batzordeak irizpide honi jarraituko dio:

- Eskerak aurkezteko epea bukatzen den egunean ikasle eskatzaileak egiten ari diren graduiko ikasketa-espeditentean zer batez besteko nota duten hartuko da kontuan, eta 10 puntu lortuko dituzte gehienez. Ikasketa-espeditentearen batez besteko notarengatik lortutako emaitza 7 faktorearekin biderkatuko da. Ikasketa-espeditentearen puntuazioa 70 puntukoa izanen da gehienez ere.
- Agiri bidez egiaztatutako ingeles maila. B2 eta C2 bitarteko mailak erabiliko dira erreferentzia gisa, eta honako puntu hauek emanen dira:

- B2 maila: 5 puntu

- C1 maila: 8 puntu

- C2 maila: 10 puntu.

Egiaztatutako ingeles mailarengatik lortutako emaitza 3 faktorearekin biderkatuko da. Ingeles mailaren puntuazioa 30 puntukoa izanen da gehienez ere.

Hautaketa-prozesu osoaren puntuazioa 100 puntukoa izanen da.

6.3.- Balorazio Batzordeak behin-behinean aukeratutako ikasleen zerrenda onetsi eta argitaratuko du, eta erreklamazioak egiteko 5 eguneko epea ezarriko du argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

6.4.- Epe hori bukatu eta gero, Balioespen Batzordeak Unibertsitateko Ikerketako errektoreordeari bidaliko dio aukeratutako ikasleen behin betiko zerrenda ebazpen baten bidez

onets dezan, eta hamar eguneko epean gehienez jarriko da jendaurrean, deialdi honen 9. oinarrian adierazten diren lekuetan.

Ebazpen horretan ezarriko da aukeratutako ikasleek zer epe daukaten esleitu zaien bekaren onarpena formalizatzeko, baita nola jokatu beharko duten ere ez badute onarpena ezarritako epean egiten.

6.5.- Aukeratutako ikasleen behin betiko zerrenda ezartzen duen ebazpenaren aurka, zilegi da aukerako berraztertze errekurtsoa jartzea errektoreari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

7.- - Ikastaroa egiteko aukeratutako ikasleen baldintzak eta betebeharrak.

7.1.- Beken bidez, “Praktikak Nafarroako enpresetan Auburneko Unibertsitateko eta NUPeko ikasleekin” ikastaroko matrikula ordainduko zaie aukeratutako ikasleei. Ordainketa ikastaroa antolatu duen erakundeari egiten zaio zuzenean.

7.2.- Aukeratutako ikasleak ikastaroko orduen % 80era joan beharko dira, salbu eta egiaztatutako kausaren bat baldin badago.

Aurreko paragrafoan adierazitako gutxieneko bertaratzea betetzen ez bada eta horretarako justifikaziorik ez badago, Balorazio Batzordearen erabaki baten bidez ikaslea aukeratua izan den ikastarotik kanpo uztea eta bekaren zenbatekoa ez ordaintzea ekar dezake, edo, beharbada, kontzeptu horrengatik jasotako dirua itzuli beharra. Hasieran aukeratuak izan ez diren ikasleak itxaron zerrenda batera pasatuko dira, deialdi honetako arauak betetzen ez dituztenak ordeztuko.

8.- - Datuen babesa.

Parte-hartzaileek deialdi honetan ematen dituzten datu pertsonalak arau hauen arabera tratatuko dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduaren gaietan pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta 3/2018 Lege Organikoa, 2018ko abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Datuen tratamenduaren xedea da IITIGMETeko graduko ikasleak aukeratzea, beka bat jasotzeko aukera izan dezaten “Praktikak Nafarroako enpresetan Auburneko Unibertsitateko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) ikasleekin” ikastaroa egitearren. Hortaz, tratamenduaren oinarri juridikoa interes publikoaren misioa betetzea da, DBEOren 6.1.e) artikulua arabera.

Datuen tratamenduaren arduradunak Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Industria Ingeniaritzako Graduatuen eta Ingeniari Teknikoen Elkargoa dira. Interesdunek eskubidea dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, bai eta beste eskubide batzuk erabiltzeko ere, delegado.protecciondatos@unavarra.es edo info@citinavarra.es helbideetara idatziz, Datu

Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Lege Organikoko 11. artikulutik 18. artikulura bitartean ezarritakoaren arabera.

NUPEk eta aipatutako elkargoak datu hauek tratatuko dituzte: hautagaien identifikazio-datuak, harremanetan jartzekoak, sinadura, ingeles maila eta ikasketa-espeditatearen nota. Horretaz gainera, eskatzaileen zerrenda eta beken onuradunen zerrenda argitaratuko dira. Halaber, bankuko datuak ere tratatuko dira onuradunei ordainketak egin behar bazaizkie. Azkenik, ohartarazten da beka jasotzen dutenak diruz lagundutako ikastarora joan ote diren kontrolatu eta erregistratuko dela.

9.- Argitalpena.

Deialdi honen oinarriak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 4.0 Industriaren Katedraren webgunean (<https://www.unavarra.es/catedra-industria40>) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki ohol elektronikoan argitaratuko dira. Era berean, 4.0 Industriaren Katedrak deialdiaren hedapena ziurtatuko du.

Deialdi hau aplikatzeko emandako gainerako egintzak 4.0 Industriaren Katedraren webgunean argitaratuko dira.

4.0 Industriaren Katedraren webgunean argitaratzea izanen da deialdi honetako epeak eta tramiteak betetzeari begira kontuan hartuko den publizitate ofizialeko tresna bakarra. Dena dela, modu osagarri eta ez ofizialean, interesdunei posta elektronikoaren bidez edo beren ikasle, irakasle eta ikertzaileen artean ahalik eta zabalpen handiena lortzearren Nafarroako Unibertsitate Publikoak egokien jotzen duen tokian edo bitartekoaren bidez ere egin litezke jakinarazpenak.

10.- - Errekurtsoak.

Interesdunek, deialdi honen eta bere oinarrien aurka, berraztertze errekurtsoa jartzen ahal dute, hilabeteko epean Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreari zuzendua, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa maila bereko Nafarroako epaitegietan, bi hilabeteko epean, biak ere argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

